

BALOREZKO PROPOSAMENA

- Gure **proiektua** Sestinnova deitzen da.
- **Enpresa mota** kooperatiba izango da.
- Gure **helburu nagusia** Sestaoko kultura, turismoa eta kirola garatzea eta sustatzea da, beraz helburu soziala da.
- Gure enpresa beste batzuetatik **bereizten** da, edozein motatako pertsonentzat aktibitate erakargarriak dauzkagulako, inportatu gabe zein hizkuntzetan hitz egiten duten, zein adinetakoak diren eta zeintzuk diren bezeroen gustoa.
- Gure **ideiak** hiru atal ditu:
- Sestaoko labe garaia eraikinean **museo** bat egingo dugu, non industralizazio garaiko antzinakotasunak ikusgai jarriko ditugu. Honekin turismoa sustatu eta Sestaoko eta inguruetakoko antzinakotasunak zabaltu nahi ditugu.



- Labe garaiko punta altuenetik **tirolina** bat egingo dugu. Tirolina lurrera ailegatuko da. Honen bidez, gazteak erakarriko ditugu eta kirola sustatuko dugu. Gainera, Sestaoko inguruko herrietan horrelakoak ez daudenez, jendea erakarriko du.



- Honekin lotuta, museoaren ondoan Nerbioi ibaia dagoela kontuan hartuz, Nerbio ibaian **uretako kirolak** egingo ditugu edozein adinetako pertsonentzat, kirola sustatzeko xedearekin. Kirol hauek izango dira *kanoak, paddle surfa* eta *pedaloak* eta irakasleak ipiniko ditugu zuen laguntzarako.



- Sestaotik Done Jakue bidea pasatzen denez, **aterpetxe** bat egingo dugu, non erromesek eroso lo egiteko eta jateko aukera izango dute prezio egokian. Honekin turismoa eta Done Jakue bidea sustatuko dugu.



- Hau guztia burutzeko, inguruak garbitu eta segurtasunez beteko ditugu, gainera, Sestaoko leku baztertuenetan egitea erabaki dugu, hauek garatzeko. Aterpetxea egiteko alokatutako lekua guztiz berriztuko dugu eta beharrezkoak diren baliabide guztiak erromesen eskura jarriko ditugu

(sukaldea, bainugelak, logelak, janaria, erlaxatzeko eremuak...). Horrela kirola, kultura eta turismoa modu **garbi** eta **seguru** batean sustatzea lortuko dugu.

- **Finantziazioa:** Gure enpresaren finantziazio era nagusia Crowdfoundina izango da, gero sakonki azalduko dena.

- Alde batetik, **balore kuantitatiboaren** arabera, hasieran ez dugu espero etekin handia lortzea. Geroago, publizitatea eta sare sozialei esker, gure proiektua zabaltzea lortuko dugu. Denborarekin, etekin nahikoa eskuratuko dugu gure jarduerak, establezimenduak eta antzinakotasunak berrizteko eta hobetzeko.

- Bestetik, **balore kualitatiboaren** arabera, turismoa, kirola eta kultura Sestaoko biztanleen artean sustatzea espero dugu. Gainera, denborarekin inguruko herrietan, gure proiektuaren berri izango dute.

- **JARDUERAK NORTZUEI ZUZENDUTA:**
 - **Gazteentzat:** Egingo ditugun jarduera hauekin Sestaoko kirola modu dibertigarriago batean sustatzea espero dugu gure gazteen artean, horretarako; tirolina bat eta Nerbioi ibaian ur-jarduerak prestatuko ditugu. Gainera, museoan ikastetxeak etortzeko baliabideak izango ditugu, hau da, tailerrak, gida dinamikoak, etab.

 - **Nagusientzat:** Lehen aipatutako museoa eta inguruetatik gida turistikoa prestatuko dugu, Sestaoko historia zabaltzeko eta kultura sustatzeko. Aldi berean, hauek ere tirolinaz eta uretako kiroletaz gozatzeko aukera izango dute.